



....EGUNEKO DIANAK




'Euskal Eskola Berria'

'Euskal Eskola Berria' liburua aurkeztu du Unibertsitateko Hezkuntza Mintegiak, gai honi buruz gizaratean dagoen kez-kari erantzuteko. / 11



Navarro eta Sala

Barbero epailearen aginduz PSOEn agiriak aztertu dituzten perituek egiazatu egin dute Filesa eta Time Exporten bidez finantzatu zela alderdi sozialista. Carlos Navarro diputatua eta Josep Maria Sala senadorea ziren Filesa eta Time Exporteko buru. / 15



Vitali Zorkin

«Estatu golpe saio» iritzi zion larunbatean bertan Boris Ieltsinen jarrerari Vitali Zorkin Errusiako Auzitegi Konstituzionaleko lehendakariak, dekretuen testuak artean bere esku ez zituela. / 18

Pascual Barturen: «Bizi-nahia eta musika oso barneraturik daramatzagu euskaldunok»

GOIZALDE LANDABASO / DEUSTU

Pascual Barturenek hamahiru urte zituen musika ikasten hasi zenean. «Ikastetxean nengoela, irakasle oso musikazalea ezagutu nuen eta berak bultzatuta hasi nintzen musika ikasten», dio. Senideen artean ez du musika tradiziozirik. Hori dela eta, hamahiru urtera arte ez zuen jakin musika zer zen ere.

Musika ikasketa asko egin ditu, «ez dakit guztiak gogoratuko ditudan baina». Dena den, batzuk gogora ekarri eta gureganatu ditu: «Solfeo, pianoa, organoa, konposizioa eta musikologia». Hiru musika tresna jotzen ditu, pianoa, organoa eta txistua eta atseginen duena organoa da, zalantzarik gabe.

Orain hemezortzi urte Deustuko Ikas-Ama abesbatza sortu eta zuzentzeari ekin zion. Honez gain, beste abesbatza asko zuzendu ditu gizon honek: Ikas-Ume, Bilboko Korala, Galdakaoko Zaletasun abesbatza eta beste hainbeste. Emakumezko eta gizonezkoen abesbatzak nahiko desberdinak direla azaldu du. «Andrazkoak finagoak dira. Beste mundu bat da. Gizonezkoek beraien gauzak dituzte. Baina guztiak alde ona eta txarra dute».

Betidanik gustatu izan zaio abesbatzak zuzentzea. Ia berrogei urte daramatza horretan eta ez du uzteko asmorik. Baina musika munduaren beste arlo batzuk ditu atseginago: organoa eta musika konposizioa. Zer-nolako musika egiten duen galdetzean, zera erantzun du: «Eliz musikako maila guztiak eta Euskal Herriko musika». Abesbatzentzako musika herrikoiko asko egokitu duela dio.

Musika lan asko egin ditu, bai.



XOUSE SIMAL

SOSLAIA

Abade musikaria

Pascual Barturenek zuzendu zuen lehenengo abesbatza ekarri du gogora, «ikastetxeko abesbatza izan zen». Musika guztia atsegin du gizon honek: «Musika ona bada eta ondo egina badago beti atsegin dut». Gogoko dituen musikari zerrrendatxoak eman digu: Strauss, Britten, Aita Donostia, Iruarritzaga anaia, Guridi, Goikoetxea,.... 24 urte zituenetik mezadun abadea da. Atzerrira sarritan jo du partituren bila. Remacha musikaria maisutat izan zuen. Cordero musikaria miresten du eta honek egindako guztia pasa izan da bere eskuetatik.

Musika lan guztien konposizioa berdina ez dela arrazoitu du. «Lehenengo ikusi egin behar da zelako musika lana den. Guztiak ez dute tratamendu eta erraztasun berbera». Egin duen musika lan horretan obrarik luzeena 'Euskal Meza' izan omen da. Baina Madrilen kalera-tzean dagoen lana ere luzea da. «Horrek 500 orrialdetik gora izango ditu».

Orain urte batzuetatik hona eskolak ematen ditu Arriaga Musika Eskolan. Musika irakastea ere atsegin du. «Aurten Cordero musikariak utzitako irakasgaiak ematen ditut. Inoiz baino pozago nago, ikasleak ere pozik daudelako» diosku. Musika partituras erosteko atzerrira hainbat bidaia egin ditu, «merkeago eta ugariagoak direlako». Polonia, Hungaria eta Alemaniak hainbat partitura etxeratu ditu. Musika tresnei buruz ere hitz batzuk izan ditu. «Organo onenak, finenak Frantzia egin dira, baina orain Alemanian organo ederrak egiten dituzte».

Euskal Herrian musikari gazte oso onak datozela azaldu digu. Euskal musikari oso onak daudelako us-tea gureganatu du: «Euskaldunok bizia eta musika barruan daramatzagu». Euskaldunok abesteko eta musika egiteko duin gara uste du gizon honek eta ume abesbatzetatik hainbat musikari sortu direla azpimarratu nahi izan du.

Musikari izatea gauza ederra dela ere argitu du bere burua musikaritzat hartzen duen honek. Abesti oso onak daudela erantsi du eta abesti askoren artean bat aipatu du Pascual Barturenek: «Aita Donostiak egindako abesti herrikoiko batekin geldituko nintzateke. Maitegarrienetarikoa 'Nik baditut abestiak' da».

irrimarra



© Jon Zabaleta

□ 'HIRIA ETA BIZITZA' IZENBURUKO ERAKUSKETA ZABALDU ZUEN atzo Gasteizko Udalak, La Caixa eta Cesparen elkarlaguntzaz, «herritarrak ingurugiroaren arazoez jabetu daitezen»; zarata, zaborra, garraioa eta eguratsaren kutsadura direla ingurugiroaren suntsipenaren eragile erakutsi nahi zaie, azken batez. Ikusentzuteko bat, putzuetako ura ikusteko balio duen mikroskopioa, arbolak sailkatzen dituen joko informatikoa, zabor poltsetara botatzen ditugun hondakinen maketa, garraio publikoaren erreproduzioa eskalan... horiek eta gehiago daude ikusgai datorren apirilaren 18ra arte Ur Depo-sito Zaharrean zabalik dagoen erakusketan.

□ AUTOARI JARRITAKO ZEPOA «OSTEAGATIK» 24 urteko Pablo G. atxilotu zuen igande goizean Gasteizko Udaltzaingoak. Ordu batzuk lehenago ezarri zioten udaltzainek zepoa autoari Argentina kalean zela, «gidatzeko mozkortuegi zihola frogatzean», beraien esanetan. Udaltzaingoak ez ohi du horrelakoetan zepoa erabiltzen Gasteizen. Atzo ez zuten kasuaren inguruko argipenik eman nahi izan.

□ 68 EMAKUME SOLDADU IZANGO dira aurten Espainiako Armadan, orain artean lehenengoak. Bertako iturrien arabera, horietarik 29 Itsas Armadara joango dira, 20 Aire Armadara eta 19 Lurreko Armadara. Guztira 3.028 soldadu profesional gehiago izango dira aurten, beraz postu berrien % 2,5 egokitu zaizkie emakumezkoiei.

□ TXISKEROAK SALBATU zuen heriotzatik A Coruña-ko gasolindegiko langilea. Atrakatzailak bularrera egin zion tiro, baina alkandorako poltsikoan zeraman txiskeroa eta hori jo zuen balak. Lapurreta herenegun goizaldean gertatu zen hiriko Plaza de Madrid enparantzan.

LERRO GUTXITAN

Garunaren pareko ordenagailuak

2000. urteko ordenagailuen funtzionamendua giza burmuinen parekoa izango dela jakinarazi zuen atzo 'Maariv' egunkarian Ido Kanter zientzialari israel-darrak. Ordenagailu belaunaldi berria fabrikatzen ari da berai Bar-Ilaneko Unibertsitatean: 'Neurona sarea' delakoarekin funtzionatuko dute eta gizakia ordezkatzeko omen dute hainbat ekintzatan.

ONCE

ASTELEHENA

23.497

ASTELEHENA
ASTEARTEA
ASTEAZKENA
OSTIRALA KUPOTZARRA